



06/2025

# DEMOKRAZIARI BURUZKO ULERMENAK GUREAN

---

Dokumentu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza-plataformako [soziometroa.etorkizunaeraikiz.eus](https://soziometroa.etorkizunaeraikiz.eus) webgunean demokraziari buruz egindako inkestaren emaitzak aurkezten dira.



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>2</b>
1.1. IKERKETAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA .....	2
<b>2. GIPUZKOAKO EMAITZAK .....</b>	<b>3</b>
2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA .....	3
2.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA .....	7
2.3. GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK .....	11
2.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA .....	12
2.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK .....	14
2.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK .....	18
<b>3. BARRUTIAREN ARABERAKO EMAITZAK.....</b>	<b>19</b>
3.1. DEBA UROLA .....	19
3.1.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA	
3.1.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA	
3.1.3. GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK	
3.1.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA	
3.1.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK	
3.1.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK	
3.2. BIDASOA-OIARTZUN .....	35
3.2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA	
3.2.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA	
3.2.3. GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK	
3.2.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA	
3.2.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK	
3.2.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK	



3.3. DONOSTIALDEA .....	52
3.3.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA	
3.3.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA	
3.3.3. GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK	
3.3.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA	
3.3.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK	
3.3.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK	
3.4. ORIA .....	68
3.4.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA	
3.4.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA	
3.4.3. GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK	
3.4.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA	
3.4.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK	
3.4.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK	
<b>4. BARRUTIEN ARTEKO KONPARAKETA ETA JOERAK .....</b>	<b>85</b>
4.1. SOZIODEMOGRAFIKOA ALDEAK .....	85
4.2. SISTEMA POLITIKOAREN PERTZEPZIOAREN ARTEKO ALDEAK .....	87
4.3. BALIO DEMOKRATIKOEN ARTEKO ALDEAK .....	88
4.4. PARTEHARTZE POLITIKOAREN ARABERAKO ALDEAK .....	89
4.5. JOKABIDE ETIKOAK ETA HORIEN JUSTIFIKAZIOAK .....	90
<b>5. ONDORIO OROKORRAK .....</b>	<b>91</b>

# 01

## SARRERA

Ikerketa honen helburu nagusia hurrengoa da: herritarren demokraziari buruzko pertzepzioa ezagutzea, soziometroa.etorkizunaeraikiz.eus partaidetza-plataforman egindako inkestaren emaitzen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernantza parte-hartzaileagoa sustatzeko.

Soziometroa entzute aktiborako tresna da, Gipuzkoako herritarren iritzia jasotzen duena gizarte, politika eta ekonomia erronken inguruan.

Herritarren barometroak funtsezko tresnak dira gizartearen errealitatea ezagutzeko eta parte-hartze aktiboa sustatzeko. Horiei esker, joerak identifikatu, kezka komunak antzeman eta herritarrei ahotsa eman diezaiekegu erabakiak hartzerakoan. Zure laguntzarekin, gizarte informatuago, parte-hartzaileago eta demokratikoago bat eraikitzen laguntzen dugu.

# 02

## GIPUZKOAKO EMAITZAK


### 2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

Atal honetan aurkezten da azterlanaren parte-hartzaileen profil soziodemografikoa, zeinak barrutiari, lan-egoerari, generoari, adinari, ikasketa mailari eta egoera ekonomikoari dagozkien datuak biltzen baititu. Datu hauek funtsezkoak dira laginaren ezaugarri nagusiak identifikatzeko, eta, era berean, azterketaren emaitzak modu egokian interpretatzeko testuinguru egokia eskaintzen dute.


Gipuzkoako profil soziodemografikoaren arabera, parte hartu duen biztanleriaren gehiengoa Donostialdean bizi da (43,40%). Bestetik, lanean ari da (%48,98) edo erretiratuta dago (%27,56), eta gehienak 56 eta 65 urte bitartekoak dira (%35,37). Generoari dagokionez, oreka dago gizon (%49,62) eta emakumeen (%44,81) artean. Parte-hartzaileen %48,01ek adierazi dute arazo barik iristen direla hilabete amaierara, eta egoera ekonomikoa Otik 10era bitarteko eskalan 5 puntu ematen diote batez beste (%31,15ek puntuazio hori eman dute). Hezkuntza mailari dagokionez, %36,92k gradu edo lizentziatura dute, eta %24,68k lanbide heziketa. Profil honek helduak, ekonomia egonkorra dutenak eta heziketa maila ertain-altua duten pertsonak islatzen ditu nagusiki.

## 2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


### BARRUTIAREN ARABERAKO BANAKETA




### GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




## LAN-EGOERAREN ARABERAKO BANAKETA




## EGOERA EKONIMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



## IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA




## 2.2 SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA


### ASKOTARIKO ERREGIMEN POLITIKOAK DAUDE. ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




### ORO HAR, ZENBATEKO GOGOBETETZEA DUZU GIPUZKOAKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO?




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA. ( 764, 309 )**




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA. ( 764, 309 )**




## BI AUKERA HAUETATIK, ZEIN EZAUGARRI LEHENETSIKO ZENUKE GOBERNU BATEK IZATEA?



## ONDORENGO AUKERETATIK, ZEIN AGINTARI MOTA LEHENESTEN DUZU GOBERNU BATERAKO?




**AUKERATU ADOS ZAUDEN BAI EZTAPEN GUZTIAK**

## 2.3 GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK

Inkestaturen iritziz, Gipuzkoan hainbat balio sozial eta demokratiko maila ezberdinetan betetzen dira. Emandako balorazioak 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan egin dira. Hona hemen kontzeptu nagusien inguruko emaitzen laburpena:


- Askatasuna nahiko positiboki baloratua da: %67,3k uste du "dezente" (%38,2) edo "asko" (%29) betetzen dela.
- Elkartasuna ere ondo baloratua da: %57,9k uste du gutxienez "dezente" betetzen dela.
- Justizia da negatiboen baloratuenetakoa: %41,7k "zerbait" eta %24,1ek "ezer ez" baloratu dute, eta soilik %7k "asko".
- Berdintasunari dagokionez, gehienek (%68,3) uste dute "zerbait" edo "dezente" betetzen dela, baina %15,7k uste du ez dela betetzen.
- Gizarte-ongizatea positiboki baloratua da: %73k gutxienez "zerbait" edo gehiago baloratu du.
- Oparotasunaren inguruan iritziak nahiko banatuta daude, %70,9k "zerbait" edo "dezente" dioten arren, "asko" diotenak %10 baino gutxiago dira.
- Etorkizuneko itxaropena nahiko baxu baloratua da: %58k "zerbait" edo gutxiago.
- Enplegua da ondoen baloratutako kontzeptuetako bat: %43,6k "dezente" eta %10,5ek "asko".
- Segurtasunaren inguruan iritziak nahiko zatituta daude, baina %25,9k uste du ez dela batere betetzen, eta %30,2k soilik "zerbait".

Ondorio modura, askatasuna, elkartasuna eta enplegua hobekien baloratutako arloak dira, eta justizia eta segurtasuna dira kritikatuena. Inkestek erakusten dute herritarren artean badagoela balio horiekiko konfiantza, baina baita hobetu beharreko alderdi ugari ere.




## 2.4 PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA

**ZURE USTEZ, ZENBATEAN UZTEN DIO SISTEMA POLITIKOAK ZU BEZALAKO HERRITARREI POLITIKAN ERAGINA IZATEN?**




**ZURE USTEZ, ZENBATEAN AXOLA ZAIE POLITIKARIEI ZU BEZALAKO HERRITARREK PENTSATZEN DUTENA?**






## NOIZ EMAN BEHAR DUTE POLIZIA- ETA SEGURTASUN-INDARREK BEREN JARDUEREN BERRI JENDAURREAN?




## 2.5 DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK


### DEMOKRAZIA SINESGARRIA IZAN DADIN, BERTAN BIZI DIREN PERTSONEK...



### ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?



## DEMOKRAZIA EGON DADIN, ZURE USTEZ, ONDORENGO ESALDIETATIK ZEIN DA NAHITAEZKOA?



### PROPOSAMEN NAGUSIAK:

#### Justizia eta ustelkeriaren aurkako borroka

- Ustelkeria, nepotismoa eta ate birakariak zigortu behar dira.
- Justizia egokia, kasu bakoitzera egokitua.
- Aforamendua kentzea, zigorrak gogortzea eta diru publikoaren kontrol zorrotza.
- Justizia sistemaren kostuen progresibotasuna.

#### Hauteskunde sistema eta parte-hartzea

- Zerrenda irekien alde, pertsonak eta ez alderdiak hautatzeko.
- Herritarren parte-hartzea hauteskundeez harago.
- Erreferendumak politika erabakietan.
- Aportazio sozialaren arabera pisatutako botoa.
- Parte hartzeko prestakuntza minimoa eskatu beharra.
- Aplikazio edo terminal digitalen bidezko parte-hartze zuzena.

#### Herritarren ordezkariak eta harremana

- Herritarren benetako ordezkariak, ez eliteena.
- Herritarren eskaerei erreparatu.
- Herri mailako eta estatu mailako parte-hartze sistemak sortu.

#### Askatasunak, eskubideak eta berdintasuna

- Oinarrizko askatasunak ukiezinak izatea.
- Berdintasuna legearen aurrean, pribilegioarik gabe.
- Adierazpen askatasuna eta giza eskubideen errespetua.


#### Erakundeen kritika eta proposamen sakonak

- Komunikabideen manipulazioaren salaketa.
- Enpresa ustelentzako laguntza publikoen debekua.
- Zorra murriztu eta nazio subiranotasuna berreskuratu.
- Migrazio kontrola eta autonomia fiskala berdintasunean.


#### Ongizate soziala eta justizia soziala

- Herritarren ongizatea interes ekonomikoen gainetik jarri.
- Lan merkatuan eta zerbitzu publikoetan sarbide justua bermatu.
- Gizarte mailakatzea eta hizkuntza pribilegioak kritikatu.


## ZURETZAT DEMOKRAZIA ZER DEN KONTUAN IZANIK, BALORATU ONDORENGO ESALDIAK, O "BATERE GARRANTZIRIK EZ DUENA" ETA 10 "EZINBESTEKOA" IZANIK.




## MESEDEZ, ERANTZUN HURRENGO 3 GALDEREI OTIK 10ERAKO ESKALAN, O "ERABATEKO EZADOSTASUNA", ETA 10 "ERABAT ADOS" IZANIK



## NOIZ IZAN BEHARKO LUKETE PERTSONA HORIEK HEMEN BIZI DIREN HERRITARREK JASOTZEN DITUZTEN PRESTAZIO ETA GIZARTE-ZERBITZU BERBERAK JASOTZEKO ESKUBIDEA?




## DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO PREST ZEUNDEKE, BALDIN ETA DEMOKRAZIA MEHATXUPEAN EGONGO BALITZ?



## 2.6 BANAKO JOKABIDE ETIKOAK

ZHAZTUTAKO JOKABIDE HAUETAKO ZEIN IRUDITZEN ZAIZU BETI JUSTIFIKAGARRIA DEN JOKABIDE INDIBIDUALA? ERANTZUN OTIK 10ERA: 0 = "EZIN DA JUSTIFIKATU" ETA 10 = "BETI JUSTIFIKAGARRIA DA".



# 03

## BARRUTIAREN ARABERAKO EMAITZAK

### 3.1. DEBA UROLA

#### 3.1.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


Atal honetan Deba Urola barrutian egindako inkestan parte hartu duten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak aurkezten dira, jatorria, generoa, lan-egoera, egoera ekonomikoa, hezkuntza maila eta adina kontuan hartuta.

- **Jatorri geografikoa:** Parte-hartzaile gehienak Eibar eta Zarautz udalerrietakoak dira.
- **Generoa:** Emakumeen parte-hartzea gizonena baino %7,6 handiagoa izan da.
- **Lan egoera:** Parte-hartzaileen %43 lanean ari da, eta %24 erretiratuta dago.
- **Egoera ekonomikoa:** %48k dio hilabete amaierara arazorik gabe iristen dela, baina %30ek adierazi du justu iristen dela.
- **Hezkuntza maila:** Parte-hartzaileen ehuneko handiena unibertsitateko gradua edo lizentziatura (%41) eta Lanbide Heziketa (%27) dutenek osatzen dute.
- **Adin tarte:** Adin-tarte nagusia 56–65 urtekoa da (%37), eta ondoren 36–45 urtekoek parte hartu dute nabarmenki (%20,8).


Deba Urola barrutiko inkestan parte hartu dutenen artean, Eibar eta Zarautz nabarmendu dira jatorriaren arabera. Emakumeek osatzen dute gehiengoa, eta parte-hartzaile gehienak lan-adinean daude, nahiz eta erretiratu kopuru esanguratsua ere baden. Egoera ekonomikoa orokorrean egonkorra da, baina %30ek dio hilabete amaierara justu iristen dela. Hezkuntza mailari dagokionez, gehienek Lanbide Heziketa edo unibertsitate-ikasketak dituzte. Parte-hartzaileen adinari dagokionez, nagusiak 56 urtetik gorakoak dira.

### 3.1.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


#### UDALERRIAREN ARABERAKO BANAKETA




#### GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




### LAN-EGOERAREN ARABERAKO BANAKETA




### EGOERA EKONIMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



## IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA




### 3.1.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA


#### ASKOTARIKO ERREGIMEN POLITIKOAK DAUDE. ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




#### ORO HAR, ZENBATEKO GOGOBETETZEA DUZU GIPUZKOAKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO?




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**




## BI AUKERA HAUETATIK, ZEIN EZAUGARRI LEHENETSIKO ZENUKE GOBERNU BATEK IZATEA?



## ONDORENGO AUKERETATIK, ZEIN AGINTARI MOTA LEHENESTEN DUZU GOBERNU BATERAKO?



## AUKERATU ADOS ZAUDEN BAIEZTAPEN GUZTIAK




### 3.1.3 GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK

Inkestaturen iritziz, Gipuzkoako balio sozial eta demokratikoak modu ezberdinean betetzen dira. Balorazioak 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan egin dira. Hona hemen kontzeptu nagusien inguruko emaitzen laburpena:


- Askatasuna da balio positiboen artean nagusienetakoa: parte-hartzaileen %63,9k uste du "dezente" edo "asko" betetzen dela.
- Elkartasuna ere ondo baloratua da, %58,3k uste baitu gutxienez "dezente" betetzen dela.
- Justizia da argi eta garbi negatiboen artean: %66,7k "zerbait" edo "ezer ez" dio, eta soilik %6,9k uste du "asko" betetzen dela.
- Berdintasuna eta etorkizuneko itxaropena ez dira oso positiboki baloratuak, bi kasuetan ere balorazio negatiboak %55 ingurukoak dira.
- Gizarte-ongizatea eta enplegua positiboen aldean daude, biak ere %55etik gorako balorazio onekin.
- Oparotasuna eta segurtasuna iritzi banatuenak dituzte: %49 inguruk uste dute gutxienez "dezente" betetzen direla, baina antzeko kopuru batek kontrakoa dio.

Ondorio modura, askatasuna eta enplegua dira hobekien baloratutako arloak. Justizia eta berdintasuna dira, berriz, herritarren artean kritika gehien jasotzen dituztenak. Oro har, balio sozialekiko konfiantza maila moderatua agertzen da, baina badago hobekuntza beharra nabarmentzen duen joera ere.




### 3.1.4. PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA


**ZURE USTEZ, ZENBATEAN UZTEN DIO SISTEMA POLITIKOAK ZU BEZALAKO HERRITARREI POLITIKAN ERAGINA IZATEN?**



**ZURE USTEZ, ZENBATEAN AXOLA ZAIE POLITIKARIEI ZU BEZALAKO HERRITARREK PENTSATZEN DUTENA?**




## NOIZ EMAN BEHAR DUTE POLIZIA- ETA SEGURTASUN-INDARREK BEREN JARDUEREN BERRI JENDAURREAN?




### 3.1.5. DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK


#### DEMOKRAZIA SINESGARRIA IZAN DADIN, BERTAN BIZI DIREN PERTSONEK...



#### ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




## DEMOKRAZIA EGON DADIN, ZURE USTEZ, ONDORENGO ESALDIETATIK ZEIN DA NAHITAEZKOA?




### PROPOSAMEN NAGUSIAK:

- Ordezkariek hautatu, ez alderdiak.


## ZURETZAT DEMOKRAZIA ZER DEN KONTUAN IZANIK, BALORATU ONDORENGO ESALDIAK, O "BATERE GARRANTZIRIK EZ DUENA" ETA 10 "EZINBESTEKOA" IZANIK.




## MESEDEZ, ERANTZUN HURRENGO 3 GALDEREI OTIK 10ERAKO ESKALAN, 0 "ERABATEKO EZADOSTASUNA", ETA 10 "ERABAT ADOS" IZANIK



## NOIZ IZAN BEHARKO LUKETE PERTSONA HORIEK HEMEN BIZI DIREN HERRITARREK JASOTZEN DITUZTEN PRESTAZIO ETA GIZARTE-ZERBITZU BERBERAK JASOTZEKO ESKUBIDEA?




## DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO PREST ZEUNDEKE, BALDIN ETA DEMOKRAZIA MEHATXUPEAN EGONGO BALITZ?



### 3.1.6. BANAKO JOKABIDE ETIKOAK

ZHAZTUTAKO JOKABIDE HAUETAKO ZEIN IRUDITZEN ZAIZU BETI JUSTIFIKAGARRIA DEN JOKABIDE INDIBIDUALA? ERANTZUN OTIK 10ERA: 0 = "EZIN DA JUSTIFIKATU" ETA 10 = "BETI JUSTIFIKAGARRIA DA".



# 03

## BARRUTIAREN ARABERAKO EMAITZAK

### 3.2. BIDASOA-OIARTZUN

#### 3.2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


Bidasoa Oiartzun barrutian egindako inkestan parte hartu duten pertsonen ezaugarri nagusiak jasotzen dira atal honetan; jatorria, generoa, lan- eta egoera ekonomikoa, hezkuntza maila eta adina kontuan hartuta.

- **Jatorri geografikoa:** Parte-hartzaileen %50 Irungoak dira, eta Errenteriatik eta Pasaiatik ere kopuru nabarmena dago.
- **Generoa:** Gehiengoa gizonena da (%54), emakumeen partaidetza %41 da.
- **Lan egoera:** Parte-hartzaileen %48 lanean ari da, eta %28 erretiratuta dago.
- **Egoera ekonomikoa:** %45ek dio hilabete amaierara arazorik gabe iristen dela, baina %38k adierazi du justu iristen dela eta murrizketak egin behar izaten dituela.
- **Hezkuntza maila:** Hezkuntza mailarik ohikoena Lanbide Heziketa da (%35), eta atzetik datoz gradu edo lizentziatura dutenak (%26).
- **Adin tartea:** Parte-hartzaileen %37k 56 eta 65 urte bitartean dituzte, eta %23k 66 eta 75 artean.


Inkestan parte hartu dutenen gehiengoa Irungo biztanleak dira, eta gizonak osatzen dute parte-hartzaile multzorik handiena. Ia erdiak lanean jarraitzen du, baina erretiratuen kopurua ere nabarmena da. Ekonomikoki, gehienek egoera egonkorra dute, nahiz eta parte handi batek justu iristen dela adierazi. Hezkuntza maila ertain-altua da, Lanbide Heziketa eta unibertsitate-ikasketekin. Adinari dagokionez, inkesta 56 urtetik gorako pertsonen artean zabaldu da gehienbat.

### 3.2.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


#### UDALERRIAREN ARABERAKO BANAKETA




#### GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




## LAN-EGOERAREN ARABERAKO BANAKETA




## EGOERA EKONIMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



## IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA




### 3.2.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA


#### ASKOTARIKO ERREGIMEN POLITIKOAK DAUDE. ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




#### ORO HAR, ZENBATEKO GOGOBETETZEA DUZU GIPUZKOAKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO?




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA? ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA? ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**




## BI AUKERA HAUETATIK, ZEIN EZAUGARRI LEHENETSIKO ZENUKE GOBERNU BATEK IZATEA?



## ONDORENGO AUKERETATIK, ZEIN AGINTARI MOTA LEHENESTEN DUZU GOBERNU BATERAKO?




**AUKERATU ADOS ZAUDEN BAIEZTAPEN GUZTIAK**

### 3.2.3 GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK

Inkestaturen iritziz, Gipuzkoan balio sozial eta demokratikoak modu desberdinean betetzen dira. Balorazioak 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan egin dira. Hona hemen kontzeptu nagusien inguruko emaitzen laburpena:


- Askatasuna da balorazio positiboetan dagoen kontzeptua: %70,6k uste du "dezente" edo "asko" betetzen dela.
- Elkartasuna ere positiboki baloratu da, %62 inguruk gutxienez "dezente" dio.
- Justizia da kritikoen artean nagusienetakoa: %64,7k "zerbait" edo "ezer ez" baloratu du, eta soilik %7,5k uste du "asko" betetzen dela.
- Berdintasuna banaketa orekatuagoa du, baina %51,3k uste du ez dela behar bezala betetzen.
- Gizarte-ongizatea balorazio erdibidean dago: %50,3k positiboki baloratu du, baina %46,5ek "zerbait" edo gutxiago dio.
- Oparotasuna eta etorkizuneko itzaropena ez dira oso ondo baloratuak: bien kasuan, %55 inguruk gutxienez kritikoa agertu dira.
- Enplegua hobekien baloratutakoen artean dago: %52,4k "dezente" edo gehiago dio.
- Segurtasuna, berriz, da balorazio negatibo gehien jaso duen arloa: %63k "zerbait" edo "ezer ez" dio, eta %36k uste du ez dela batere betetzen.

Ondorio modura, askatasuna, enplegua eta elkartasuna dira hobekien baloratutako balioak. Justizia eta segurtasuna, berriz, herritarren iritziz, hobetu beharreko arlo nagusiak dira. Inkestek erakusten dute herritarren artean badagoela balio sozialekiko interesa, baina baita kritika eta espektatiba handiak ere.




### 3.2.4 PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA

**ZURE USTEZ, ZENBATEAN UZTEN DIO SISTEMA POLITIKOAK ZU BEZALAKO HERRITARREI POLITIKAN ERAGINA IZATEN?**




**ZURE USTEZ, ZENBATEAN AXOLA ZAIE POLITIKARIEI ZU BEZALAKO HERRITARREK PENTSATZEN DUTENA?**






**NOIZ EMAN BEHAR DUTE POLIZIA- ETA SEGURTASUN-INDARREK BEREN JARDUEREN BERRI JENDAURREAN?**




### 3.2.5 DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK


#### DEMOKRAZIA SINESGARRIA IZAN DADIN, BERTAN BIZI DIREN PERTSONEK...



#### ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?



## DEMOKRAZIA EGON DADIN, ZURE USTEZ, ONDORENGO ESALDIETATIK ZEIN DA NAHITAEZKOA?



### PROPOSAMEN NAGUSIAK:

#### Soberania eta parte-hartzea

- Herritarren soberania, parte-hartze zuzena, hauteskunde libre eta bidezkoak, giza eskubideen errespetua eta legearen nagusitasuna.

#### Politikarien kontrola eta gardentasuna

- Politikarien aforamendua kendu, kontrol zorrotza eta zigorrak gogorrak izan behar dira, testafarroak debekatu, zerrenda irekiak hauteskundeetan eta epaile independenteak egon behar dira. Kontu publikoen gardentasuna eta kontrol zorrotza.

#### Justizia pertsonalizatua

- Justizia pertsonalizatua eta banakakoa, berdintasuna ez da beti justizia, kasu bakoitzak behar bereziak ditu eta benetako justizia aplikatu behar da.

#### Legearen aurrean berdintasuna eta segurtasuna

- Jabetza pribatua errespetatu, legearen aurrean berdintasuna pribilegiarik gabe, eta delitu mota batzuk bertan behera utzi.


#### Autogobernua eta nazio soberanotasuna

- Herritarren segurtasuna eta autogobernua bermatu, zerga auditoretzak egin, eta lehentasuna eman nazio soberanotasunaren berreskuratzeari.


#### Autonomia eta hizkuntza pribilegioak

- Autonomia eta hizkuntza pribilegioak murriztu.


## ZUREZTAT DEMOKRAZIA ZER DEN KONTUAN IZANIK, BALORATU ONDORENGO ESALDIAK, O "BATERE GARRANTZIRIK EZ DUENA" ETA 10 "EZINBESTEKOA" IZANIK.




## MESEDEZ, ERANTZUN HURRENGO 3 GALDEREI OTIK 10ERAKO ESKALAN, O "ERABATEKO EZADOSTASUNA", ETA 10 "ERABAT ADOS" IZANIK



## NOIZ IZAN BEHARKO LUKETE PERTSONA HORIEK HEMEN BIZI DIREN HERRITARREK JASOTZEN DITUZTEN PRESTAZIO ETA GIZARTE-ZERBITZU BERBERAK JASOTZEKO ESKUBIDEA?




## DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO PREST ZEUNDEKE, BALDIN ETA DEMOKRAZIA MEHATXUPEAN EGONGO BALITZ?



### 3.2.6 BANAKO JOKABIDE ETIKOAK

ZEHAZTUTAKO JOKABIDE HAUETAKO ZEIN IRUDITZEN ZAIZU BETI JUSTIFIKAGARRIA DEN JOKABIDE INDIBIDUALA? ERANTZUN OTIK 10ERA: 0 = "EZIN DA JUSTIFIKATU" ETA 10 = "BETI JUSTIFIKAGARRIA DA".



# 03

## BARRUTIAREN ARABERAKO EMAITZAK

### 3.3. DONOSTIALDEA

#### 3.3.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


Atal honetan Donostialdea barrutian egindako inkestan parte hartu duten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak aurkezten dira, jatorria, generoa, lan-egoera, egoera ekonomikoa, hezkuntza maila eta adina kontuan hartuta.

- **Jatorri geografikoa:** Parte-hartzaileen gehiengo zabala Donostiakoa da (%89).
- **Generoa:** Gizonak dira partaide nagusiak (%50 inguru), emakumeen parte-hartzea %46koa da.
- **Lan egoera:** Parte-hartzaileen %49 lanean ari da, eta %28 erretiratuta dago.
- **Egoera ekonomikoa:** %48k dio hilabete amaierara arazorik gabe iristen dela, baina %31k adierazi du justu iristen dela eta murrizketak egin behar izaten dituela.
- **Hezkuntza maila:** Parte-hartzaileen %42k gradua edo lizentziatura dute, eta %19k Lanbide Heziketa.
- **Adin tarte:** Parte-hartzaileen adin-tarte nagusia 56 eta 65 urte bitartekoa da (%36), eta ondoren 66 eta 75 urte artekoak datoz (%25).


Donostialdea barrutiko inkestan parte hartu dutenen gehiengoa Donostian bizi da, eta generoaren arabera, parte-hartzea nahiko orekatua da. Lan-egoeran, ia erdiak lanean jarraitzen du eta erretiratuen presentzia ere esanguratsua da. Parte-hartzaile gehienek egoera ekonomiko egonkorra adierazi dute, baina heren batek egoera zailagoa du. Hezkuntza maila altua da oro har, nagusiki unibertsitate-ikasketak dituztenak. Adinari dagokionez, gehienak 56 urtetik gorakoak dira.

### 3.3.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


#### UDALERRIAREN ARABERAKO BANAKETA




#### GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




### LAN-EGOERAREN ARABERAKO BANAKETA




### EGOERA EKONIMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



## IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA




### 3.3.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA


#### ASKOTARIKO ERREGIMEN POLITIKOAK DAUDE. ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




#### ORO HAR, ZENBATEKO GOGOBETETZEA DUZU GIPUZKOAKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO?




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**




**ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA?  
ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.**





## BI AUKERA HAUETATIK, ZEIN EZAUGARRI LEHENETSIKO ZENUKE GOBERNU BATEK IZATEA?



## ONDORENGO AUKERETATIK, ZEIN AGINTARI MOTA LEHENESTEN DUZU GOBERNU BATERAKO?




**AUKERATU ADOS ZAUDEN BAIEZTAPEN GUZTIAK**

### 3.3.3 GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK

Inkestaturen iritziz, Gipuzkoan hainbat balio sozial eta demokratiko maila ezberdinetan betetzen dira. Emandako balorazioak 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan egin dira. Hona hemen kontzeptu nagusien inguruko emaitzen laburpena:


- Askatasuna da ondoen baloratutako kontzeptuetako bat: %69,8k uste du "dezente" (%42,15) edo "asko" (%27,62) betetzen dela.
- Elkartasuna ere positiboki baloratua da, nahiz eta banaketa orekatuagoa izan: %58,1ek dio "dezente" edo "asko" betetzen dela.
- Justizia negatiboen artean dago: %67,1ek "zerbait" (%43,3) edo "ezer ez" (%23,8) dio, eta soilik %6,9k uste du "asko" betetzen dela.
- Berdintasuna kritikoago baloratua izan da; %52,3k "zerbait" edo "ezer ez" dio, eta %42,7k "dezente" edo "asko".
- Gizarte-ongizatea nahiko positiboa da: %54 inguruk dio "dezente" edo gehiago betetzen dela, nahiz eta %42k "zerbait" edo gutxiago dioen.
- Oparotasunaren inguruan iritzia nahiko orekatuta daude: %47,7k "dezente" edo "asko", eta %47,4k "zerbait" edo "ezer ez".
- Etorkizuneko itzaropena ez da ondo baloratua: %61,3k "zerbait" edo "ezer ez" dio, eta soilik %9k "asko".
- Enplegua da balorazio positibo gehien jasotzen dutenen artean: %54,4k "dezente" edo "asko" dio.
- Segurtasuna da negatiboen artean: %57,5ek "zerbait" edo "ezer ez" dio, eta %27k uste du ez dela batere betetzen.

Ondorio modura, askatasuna, enplegua eta elkartasuna dira hobekien baloratutako kontzeptuak. Justizia, berdintasuna eta segurtasuna, berriz, kritikatuena dira. Inkestek erakusten dute herritarren artean badagoela balio horiekiko konfiantza, baina baita hobetu beharreko arlo asko ere.




### 3.3.4 PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA


ZURE USTEZ, ZENBATEAN UZTEN DIO SISTEMA POLITIKOAK ZU BEZALAKO HERRITARREI POLITIKAN ERAGINA IZATEN?



ZURE USTEZ, ZENBATEAN AXOLA ZAIE POLITIKARIEI ZU BEZALAKO HERRITARREK PENTSATZEN DUTENA?




## NOIZ EMAN BEHAR DUTE POLIZIA- ETA SEGURTASUN-INDARREK BEREN JARDUEREN BERRI JENDAURREAN?




### 3.3.5 DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK


#### DEMOKRAZIA SINESGARRIA IZAN DADIN, BERTAN BIZI DIREN PERTSONEK...



#### ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?



## DEMOKRAZIA EGON DADIN, ZURE USTEZ, ONDORENGO ESALDIETATIK ZEIN DA NAHITAEZKOA?



### PROPOSAMEN NAGUSIAK:

#### Parte-hartze politikoa eta hauteskundeak

- Zerrenda irekiak eta hautetsien erantzukizun zuzena
- Herritarren parte-hartzea ez dadila muga bozkara soilik
- Herritarren aldarrikapenak entzun eta kontuan hartu
- Erabaki politiko guztiak erreferendumez bozkatzea
- Aplikazio edo terminal digitalen bidez boto zuzena (demokrazia zuzena)
- Bozkatzeko gutxieneko prestakuntza edo kalifikazioa izatea
- Ponderatutako botoa, gizarteari egindako ekarpenaren arabera

#### Ordezkaritza eta gardentasuna

- Herritarren benetako ordezkaritza ezarri
- Politikariek herritarrentzat lan egin behar dute, ez alderantziz
- Ustelkeria eta nepotismoa zigortu eta saihestu (ate birakariak barne)
- Gardentasuna eta autokritika ordezkarien aldetik; dimisioa ustelkeria kasuetan
- Erabakiak interes ekonomikoen gainetik hartu


#### Justizia eta berdintasuna

- Justizia zuzena eta berdintasunean oinarritua
- Sistema judizialean baldintza berdinak guztiontzat
- Lanaren ordain justua eta bizi-ardua
- Oinarritzko askatasunak ukiezinak izan daitezela (adierazpen askatasuna, eta abar)


#### Beste proposamen batzuk

- Nazioaren baliabideak herritarren zerbitzura jarri
- Informazio fidagarri eta kontrastatua eskuratzeko eskubidea
- Askatasun indibidualak inongo estatu, erakunde edo gehiengorengandik babestu
- Gobernuak herritarren bizi-kalitatea hobetu eta herrialdea indartu behar du


## ZUREZTAT DEMOKRAZIA ZER DEN KONTUAN IZANIK, BALORATU ONDORENGO ESALDIAK, O "BATERE GARRANTZIRIK EZ DUENA" ETA 10 "EZINBESTEKOA" IZANIK.




## MESEDEZ, ERANTZUN HURRENGO 3 GALDEREI OTIK 10ERAKO ESKALAN, O "ERABATEKO EZADOSTASUNA", ETA 10 "ERABAT ADOS" IZANIK



### NOIZ IZAN BEHARKO LUKETE PERTSONA HORIEK HEMEN BIZI DIREN HERRITARREK JASOTZEN DITUZTEN PRESTAZIO ETA GIZARTE-ZERBITZU BERBERAK JASOTZEKO ESKUBIDEA?




### DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO PREST ZEUNDEKE, BALDIN ETA DEMOKRAZIA MEHATXUPEAN EGONGO BALITZ?



### 3.3.6 BANAKO JOKABIDE ETIKOAK

ZHAZTUTAKO JOKABIDE HAUETAKO ZEIN IRUDITZEN ZAIZU BETI JUSTIFIKAGARRIA DEN JOKABIDE INDIBIDUALA? ERANTZUN OTIK 10ERA: 0 = "EZIN DA JUSTIFIKATU" ETA 10 = "BETI JUSTIFIKAGARRIA DA".



# 03

## BARRUTIAREN ARABERAKO EMAITZAK

### 3.4. ORIA

#### 3.4.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


Atal honetan Oria barrutian egindako inkestan parte hartu duten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak laburbiltzen dira, jatorria, generoa, lan-egoera, egoera ekonomikoa, hezkuntza maila eta adina kontuan hartuta.

- **Jatorri geografikoa:** Parte-hartzaileen ia erdia Abaltzisketan bizi da (%49), eta gainerakoen artean Beasain, Tolosa eta Zumarraga nabarmentzen dira.
- **Generoa:** Parte-hartzaileen %47 gizonezkoa da, eta emakumezkoen parte-hartzea %38koa da.
- **Lan egoera:** Parte-hartzaileen %46 lanean ari da, eta %30 erretiratuta dago.
- **Egoera ekonomikoa:** %43k dio hilabete amaierara arazorik gabe iristen dela, eta %31k oso justu iristen direla adierazi dute.
- **Hezkuntza maila:** Parte-hartzaileen %32k gradu edo lizentziatura dute, eta %27k lanbide heziketa.
- **Adin tartea:** Parte-hartzaileen %27k 56 eta 65 urte artean ditu, eta %26k 66 eta 75 urte artean.


Oria barrutiko inkestan parte hartu dutenen artean, Abaltzisketako biztanleak nabarmendu dira. Generoaren arabera, gizonen parte-hartzea emakumeena baino pixka bat handiagoa izan da. Parte-hartzaile askok lan-jardueran jarraitzen dute, baina erretiratuen kopurua ere aipagarria da. Gehienek egoera ekonomiko egonkorra adierazi dute, nahiz eta parte batek estutasunak dituen. Hezkuntza mailari dagokionez, goi-mailako ikasketak edo lanbide-heziketa dutenak nabarmentzen dira. Adinari dagokionez, parte-hartzaile gehienek 56 urtetik gora dituzte.

### 3.4.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA


#### UDALERRIAREN ARABERAKO BANAKETA




#### GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




### LAN-EGOERAREN ARABERAKO BANAKETA




### EGOERA EKONIMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



## IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA




### 3.4.2. SISTEMA DEMOKRATIKOAREN INGURUKO IRITZIA


#### ASKOTARIKO ERREGIMEN POLITIKOAK DAUDE. ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?




#### ORO HAR, ZENBATEKO GOGOBETETZEA DUZU GIPUZKOAKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO?




### ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA? ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.




### ZEIN DA, ZURE USTEZ, ONDORENGO BI AUKERETATIK DEMOKRATIKOAGOA? ALEGIA, DEMOKRAZIAREN ZURE USTETIK GERTUAGO DAGOENA.




## BI AUKERA HAUETATIK, ZEIN EZAUGARRI LEHENETSIKO ZENUKE GOBERNU BATEK IZATEA?



## ONDORENGO AUKERETATIK, ZEIN AGINTARI MOTA LEHENESTEN DUZU GOBERNU BATERAKO?



## AUKERATU ADOS ZAUDEN BAI EZTAPEN GUZTIAK




### 3.4.3 GIPUZKOAN HAUTEMANDAKO BALIOAK

Inkestatutako pertsonak Gipuzkoako balio sozial eta demokratikoen betetze maila ebaluatu dute. Balorazioa 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitartean izan da. Hona hemen emaitzen laburpena:


- Askatasuna da positiboki baloratuenetako bat, parte-hartzaileen %57,3k uste baitu "dezente" edo "asko" betetzen dela.
- Elkartasuna ere ondo kokatzen da: %50,9k iritzi positiboa eman du, nahiz eta %39 inguruk "zerbait" edo "ezer ez" balorazioa eman.
- Justizia da okerren baloratutako arloa: bi heren inguruk (%66,4) uste du ez dela behar bezala betetzen.
- Berdintasuna eta etorkizuneko itxaropena ere ez dira ondo baloratuak, bi kasuetan iritzi negatiboak positiboak baino nabarmen handiagoak dira.
- Gizarte-ongizatea, oparotasuna eta segurtasuna kasuetan, iritziak banatuago daude, baina oraindik ere %50 inguruko iritzi negatiboa agertzen da.
- Enplegua da baloraziorik onenetakoa jaso duen kontzeptua: %54,5ek "dezente" edo "asko" baloratu dute.

Ondorio modura, askatasuna eta enplegua dira positiboan artean nabarmentzen diren balioak, eta justizia eta etorkizunaren inguruko ikuspegia dira gehien kritikatzeko direnak. Oro har, balio sozialak maila ertainean baloratu dira, hobekuntza beharra nabaria dela erakutsiz.




### 3.4.4 PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA ERAGINAREN PERTZEPZIOA


**ZURE USTEZ, ZENBATEAN UZTEN DIO SISTEMA POLITIKOAK ZU BEZALAKO HERRITARREI POLITIKAN ERAGINA IZATEN?**



**ZURE USTEZ, ZENBATEAN AXOLA ZAIE POLITIKARIEI ZU BEZALAKO HERRITARREK PENTSATZEN DUTENA?**




## NOIZ EMAN BEHAR DUTE POLIZIA- ETA SEGURTASUN-INDARREK BEREN JARDUEREN BERRI JENDAURREAN?




### 3.4.5 DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO BALIO NAGUSIAK


#### DEMOKRAZIA SINESGARRIA IZAN DADIN, BERTAN BIZI DIREN PERTSONEK...



#### ONDORENGO ESALDIETATIK ZEINEKIN ZAUDE ADOS?



## DEMOKRAZIA EGON DADIN, ZURE USTEZ, ONDORENGO ESALDIETATIK ZEIN DA NAHITAEZKOA?



### PROPOSAMEN NAGUSIAK:

#### Manipulazio ideologikorik ez eta instituzio autonomoak

- Herrialdeko biztanleek ez lukete jasan behar komunikabideen eta telebisten bidezko manipulazio ideologikorik.
- Instituzioek prestatuak eta autonomoak izan behar dute, eta ez EB bezalako "mafia globalisten" menpe.

#### Ez gobernatu gutxiengoaren mesedetan

- Gobernuak ez luke gobernatu behar gutxiengoentzako bakarrik, baizik eta herritar guztientzat.


#### Ustelkeria sustatzen duten enpresei laguntzarik ez

- Frogatua dagoenean enpresa handi batek ustelkeria sustatzen duela, ez litzaioke emon behar diru-laguntza publikorik.


#### Justiziaren kostuak eta komunikabide lege berria

- Justizia sistemaren kostuak progresiboak izan behar dute.
- Komunikabideen lege berria behar da, enpresa handien eraginpean egon ez daitezten.


## ZUREZTAT DEMOKRAZIA ZER DEN KONTUAN IZANIK, BALORATU ONDORENGO ESALDIAK, O "BATERE GARRANTZIRIK EZ DUENA" ETA 10 "EZINBESTEKOA" IZANIK.




## MESEDEZ, ERANTZUN HURRENGO 3 GALDEREI OTIK 10ERAKO ESKALAN, O "ERABATEKO EZADOSTASUNA", ETA 10 "ERABAT ADOS" IZANIK



## NOIZ IZAN BEHARKO LUKETE PERTSONA HORIEK HEMEN BIZI DIREN HERRITARREK JASOTZEN DITUZTEN PRESTAZIO ETA GIZARTE-ZERBITZU BERBERAK JASOTZEKO ESKUBIDEA?




## DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO PREST ZEUNDEKE, BALDIN ETA DEMOKRAZIA MEHATXUPEAN EGONGO BALITZ?



### 3.4.6 BANAKO JOKABIDE ETIKOAK

**ZHAZTUTAKO JOKABIDE HAUETAKO ZEIN IRUDITZEN ZAIZU BETI JUSTIFIKAGARRIA DEN JOKABIDE INDIBIDUALA? ERANTZUN OTIK 10ERA: 0 = "EZIN DA JUSTIFIKATU" ETA 10 = "BETI JUSTIFIKAGARRIA DA".**



# 04

## BARRUTIEN ARTEKO KONPARAKETA ETA JOERAK

### 4.1. SOZIODEMOGRAFIAKO ALDEAK

#### Jatorri geografikoa

- Donostialdea eta Bidasoa Oiartzun dira jatorriari dagokionez kontzentrazio handiena dutenak, eta Deba Urola zein Oria udalerrri gehiagoren artean banatuta ageri dira.

#### Generoa

Deba Urolan emakumeen parte-hartzea gizonena baino %7,6 handiagoa izan da. Bidasoa Oiartzunen, berriz, gizonak nagusitu dira (%54), emakumeek %41 osatuz. Donostialdean generoaren arabera parte-hartzea orekatua izan da (%50 gizon, %46 emakume). Oriako parte-hartzaileak %47 gizonezkoak dira, eta %38 emakumezkoak.

- Deba Urola da emakumeek gehien parte hartu duten eskualdea. Beste barrutietan gizonak nagusi dira, nahiz eta Donostialdean oreka nabari den.

#### Lan-egoera

Deba Urolan parte-hartzaileen %43 lanean ari da, eta %24 erretiratuta. Bidasoa Oiartzunen %48k lan egiten du eta %28 erretiratuta dago. Donostialdean %49 lanean dira eta %28 erretiratuta. Oriako parte-hartzaileen %46 lanean ari da, eta %30 erretiratuta dago.

- Lau barrutietan antzeko joera ageri da: parte-hartzaileen ia erdia lan-egoera aktiboan dago, eta erretiratuek pisu handia dute.

#### Adin tartea

Deba Urolan parte-hartzaileen %37k 56 eta 65 urte artean dituzte, eta %20,8k 36 eta 45 urte artean. Bidasoa Oiartzunen %37k 56 eta 65 urte dituzte, eta %23k 66 eta 75 urte artean. Donostialdean %36k 56 eta 65 urte artean dituzte, eta %25ek 66 eta 75 urte. Oriako parte-hartzaileen %27k 56 eta 65 urte artean dituzte, eta %26k 66 eta 75 urte.

- Lau barrutietan parte-hartzaile nagusiak 56 urtetik gorakoak dira, adin-tarte zaharragoetan kontzentratuta.

## 4.1. SOZIODEMOGRAFIAKO ALDEAK

### Egoera ekonomikoa

Deba Urolako parte-hartzaileen %48k dio hilabete amaierara arazorik gabe iristen dela, eta %30ek justu iristen dela. Bidasoa Oiartzunen %45k egoera ekonomikoko egonkorra adierazi dute, baina %38k murrizketak egin behar izaten dituztela diote. Donostialdean %48k arazorik gabe iristen direla adierazi dute, baina %31k estutasunak aipatu dituzte. Oriako parte-hartzaileen %43k egoera egonkorra adierazi dute, eta %31k oso justu iristen direla.

- Egoera ekonomikoa lau eskualdetan nahiko antzekoa da, nahiz eta Bidasoa Oiartzunen estutasunen adierazpena nabarmenagoa izan.

### Hezkuntza maila

Deba Urolan parte-hartzaileen %41k unibertsitateko ikasketak dituzte, eta %27k Lanbide Heziketa. Bidasoa Oiartzunen %35ek Lanbide Heziketa dute, eta %26k unibertsitateko ikasketak. Donostialdean parte-hartzaileen %42k gradua edo lizentziatura dute, eta %19k Lanbide Heziketa. Ori barrutian %32k unibertsitateko ikasketak dituzte, eta %27k Lanbide Heziketa.

- Donostialdeak eta Deba Urolak dute hezkuntza maila altuena. Bidasoa Oiartzunen eta Oriaren Lanbide Heziketak presentzia handiagoa du.

### OROKORREAN:

Lau barrutietako parte-hartzaileek profil soziodemografiko antzekoa dute: gehienak 56 urtetik gorakoak dira, eta lan-egoera aktiboan edo erretiratura daude. Generoaren aldetik, Deba Urolan emakumeak nagusi dira, beste barrutietan gizonak. Hezkuntza maila altuena Donostialdean eta Deba Urolan dago, eta egoera ekonomikoa orokorrean egonkorra bada ere, Bidasoa Oiartzunen estutasun handiagoa antzematen da. Jatorri geografikoki, Donostialdea eta Bidasoa Oiartzun dira kontzentratzen direnak, eta Deba Urola eta Ori anitzagoak.

## 4.2. SISTEMA POLITIKOAREN PERTZEPZIOAREN ARTEKO ALDEAK

Lau barrutietan jasotako iritzien arabera, **demokrazia gobernu-modu gisa zabalki onartua da**, eta gehiengo zabal batek beste edozein sistemaren gainetik jartzen du. Deba Urolan, inkestaturen %85,8k uste dute demokrazia beste edozein gobernu-mota baino hobea dela; antzeko emaitzak jaso dira Bidasoa-Oiartzun (%84,8) eta Donostialdean (%84,7) ere.

- Aipatzekoa da barruti horietan guztietan gutxiengo batek onartzen duela egoera jakin batzuetan erregimen autoritario batek demokraziaren ordezkoa izan dezakeela. Donostialdean, esaterako, jarrera hori agertu duen ehunekoa %9,6ra iritsi da, beste eskualdeetako gainetik.
- Demokraziaren funtzionamenduarekiko **gogobetetasun-mailari dagokionez**, Deba Urolako herritarrek adierazi dute oro har gogobetetasun handiena: %62 inguru "oso" edo "nahiko" pozik agertu dira. Bidasoa-Oiartzunen ere antzeko joera ikusten da, nahiz eta pozik ez daudenen ehunekoa pixka bat handiagoa den, eta Donostialdean, berriz, kritikak ugariagoak dira: ia heren batek adierazi du ez dagoela pozik sistema horren funtzionamenduarekin.
- **Sistema demokratikoaren praktikazko formari buruz galdetuta**, lau barrutietan jarrera nahiko polarizatua agertu da. Deba Urola eta Donostialdean, herritarren artean nabari da bi ikuspegi daudela: batetik, hauteskunderen bidezko ordezkari (50% eta 48,9% hurrenez hurren) eta, bestetik, bestelako parte-hartze zuzeneko formulak (auto-antolaketa, zozketa, asanbladak). Bidasoa-Oiartzunen, berriz, hauteskunderen aldeko jarrera nagusitu da (ia %58), eta bestelako moduak bigarren mailan gelditu dira. Oriako kasuan, asanblearen aldeko jarrerak agertzen dira.

Amaitzeko, demokraziaren inguruko jarrera emozionalari erreparatuz, hiru barrutietan konpromisoa da nagusi. Parte-hartzaileen gehiengoak erakutsi du demokraziaren aldeko konpromiso irmoa, nahiz eta %20 inguruk konfiantza falta edo haserrea bezalako jarrerak ere azaldu dituzten, bereziki Donostialdean.

### 4.3. BALIO DEMOKRATIKOEN ARTEKO ALDEAK

Lau barrutietako herritarren iritziek erakusten dute demokraziaren funtzionamendua ez dela ulertzen modu bakarrean, eta balio ezberdinek duten pisua aldatu egiten dela eskualde batetik bestera.

- Deba Urolan, herritarren ustez demokrazia funtzionatzeko ezinbestekoa da **justizia berdintasunean oinarritua izatea**; balio hori da nabarmenki lehenetsiena. Ondoren, adierazpen askatasuna eta diru-sarrera duinak bezalako elementuak ageri dira garrantzitsu gisa. Gutxiengoan eskubideen eta hauteskunde-aukeren inguruko balorazioak ere positiboak izan dira, baina bigarren mailan.
- Bidasoa-Oiartzunen, ikuspegi kritikoagoa nagusitzen da. Herritarren gehiengoak adierazi duenez, demokrazia egokia izateko ezinbestekoa da **herritarren parte-hartze zuzena, baita politikarien kontrola eta gardentasuna ere**. Zentzu horretan, proposamen ugari jaso dira: aforamendua kentzea, epaile independenteak, zerrenda irekiak eta kontu publikoen gardentasuna, besteak beste. Balio gisa, soberania, segurtasuna eta justizia pertsonalizatua ere azpimarratu dituzte.
- Donostialdean, balio demokratiko tradizionalen aldeko jarrera nabarmendu da: **eskubide eta askatasunak, herritarren ongizatea, eta hauteskunde bidezko ordezkari oso garrantzitsu gisa baloratu dira**. Hala ere, ez da ahaztu ustelkeriaren aurkako borroka, gardentasuna, eta politikarien erantzukizuna ere lehenetsi dituztela. Proposamen berritzaile batzuk ere agertu dira, hala nola boto ponderatua edo prestakuntza baldintzatua botoa emateko.
- Oria barrutian, herritarrek **justizia berdintasunean oinarritua, gutxiengoekiko errespetua, eta adierazpen askatasuna aipatzen dituzte balio nagusien modura**. Halaber, nabarmendu dute demokrazia defendatzeko prest egongo liratekeela mehatxupean balego, eta ikuspegi orokor batean autogobernua, pribatutasuna eta legearen aurreko berdintasuna bezalako printzipioak ere ezinbestekotzat jotzen dituzte. Beste alde batetik, proposamenetan "parte-hartze zuzena" eta "herritarren kontrola" aldarrikatu dituzte modu nabarmenean.

Laburbilduz, lau barrutietan justizia, adierazpen askatasuna eta herritarren parte-hartzea dira balorazio handiena jasotzen duten printzipio demokratikoak. Hala ere, Bidasoa-Oiartzun eta Oria bezalako eskualdeetan kritikotasun handiagoa eta exijentzia maila altuagoa nabari da ordezkariari eta kontrol publikoari dagokienez.

## 4.4. PARTEHARTZE POLITIKOAREN ARABERAKO ALDEAK

Lau barrutietan jasotako datuek erakusten dute parte-hartze politiko aktiboaren maila nahiko mugatua dela, eta herritarren artean eragin sentimendu eskasa nagusitzen dela.

- Deba Urolan, **parte-hartze politikoari buruz galdetuta, gehienek (ia %65) adierazi dute "oso gutxi" edo "zerbait"** besterik ez dutela parte hartzen. Honek adierazten du jarduera politikoan benetako inplikazioa gutxi batzuen esku geratzen dela. Gainera, sistemak herritarren iritzia kontuan hartzen duenaren sinesmena ere urria da: %66 inguruk dio politikariek "oso gutxi" edo "batere ez" axola dietela herritarren iritziek.
- Bidasoa-Oiartzunen, antzeko irudia agertzen da. **Parte-hartze politikoari dagokionez, gehienek "zerbait" edo "oso gutxi"** parte hartzen dutela aitortu dute, eta %25ek uste du ez duela inolako eraginik. Gainera, politikariek herritarren iritzia kontuan hartzen duten neurrian ere, eszeptizismo nabaria sumatzen da: herritarren %66k dio politikariei ez zaiela axola jendearen iritzia, edo axola bazaie ere, neurri txikian.
- Donostialdean, **parte-hartze politikoaren pertzepzioa are negatiboagoa** da. Herritarren artean, %64 inguruk dio "oso gutxi" edo "ezer ez" parte hartzen duela politikoki, eta antzeko ehunekoa ageri da sistema politikoak euren iritzia iragintzen ematen dion neurrian ere. Politikariek herritarren iritzia kontuan hartzen duten sentsazioa oso eskasa da; %69 inguruk uste du ez zaiela axola edo axola izanda ere, ez dutela eragiten.
- Oria barrutian, inkestatutakoen gehiengoak ere adierazi du **parte-hartze politikoa murriztua dela**: gehienek "zerbait" edo "oso gutxi" parte hartzen dutela diote, eta "izugarri" edo "asko" diotenak oso gutxi dira. Eraginaren sentimendua ere oso antzekoa da: gehienek ez dute uste euren iritzia erabakietan islatzen denik, eta politikarien jarrera axolagabe gisa hautematen dute.

Laburbilduz, Gipuzkoako lau barrutietan herritarrek parte-hartze politiko mugatua izaten dutela ikusten da, eta politikariek euren iritzia aintzat hartzen dutenaren sinesmen eskasa nabari da. Parte-hartze eta ordezkariak errealari buruzko kezka orokorra nabarmentzen da.

## 4.5. JOKABIDE ETIKOAK ETA HORIEN JUSTIFIKAZIOAK

Inkestatutako herritarrei zenbait jokabide indibidual justifikagarriak ote diren galdetu zaie, eta erantzunek argi erakusten dute Gipuzkoako lau barrutietan jarrera orokorra zigorgarri edo desegokitzat jotzea dela, nahiz eta portaera batzuetan tolerantzia handiagoa antzeman daitekeen.

- Deba Urolan, **gehiengo zabal batek uste du portaera okerrak, hala nola garraio publikoan txartelik gabe bidaiatzea, zergetan iruzur egitea edo eroskeria, ez direla inolaz ere justifikagarriak**. Ildo horretatik, gehiegizko abiadura edo zaborra ez birziklatzea bezalako eguneroko ohituretan, tolerantzia apur bat handiagoa sumatzen da, baina hala ere iritzi orokorra zorrotza da.
- Bidasoa-Oiartzun **barrutiko emaitzek jarrera etiko zorrotzagoa erakusten dute**: %90 inguruko erantzunek diote portaera horiek —batez ere zerga-iruzurra eta eroskeria— ezin direla sekula justifikatu. Bestalde, gezurra esatea norberaren intereserako edo laguntza sozialak baliatzea baldintzak betetzen ez badira bezalako kasuetan, tolerantzia txiki bat nabaritu da, baina gutxiengoak dira.
- Donostialdean, antzeko joera mantentzen da. **Jokabide gehienek gaitzespen zabala jasotzen dute, baina birziklapenarekin lotutako portaeretan eta gehiegizko abiaduran jarrera apur bat malguagoak sumatu dira** beste barrutiek alderatuta. Hala ere, justizia sozialaren printzipioek eta gizartearen ekarpenarekiko errespetuak iritzi gehienetan eragin nabarmena dute.
- Oriako emaitzek, berriz, erakusten dute **jarrera sendoa dagoela etika pertsonalaren defentsan**. Herritar gehienek adierazi dute ez dela onargarria inongo egoeratan portaera horiek justifikatzea, eta laguntza publikoen iruzurra, eroskeria, edo zerga iruzurra gaitzetsi dituzte modu bereziki nabarmenean. Oro har, konpromiso etiko handiagoa ikusten da barruti honetan, eta balio kolektiboen aldeko jarrera irmoa.

Laburbilduz, Gipuzkoako lau barrutietan iritzi bateratua dago jokabide indibidual jakin batzuk ez direla zilegi, nahiz eta bizitza errealean ohikoagoak izan daitezkeen portaeretan (birziklapena edo abiadura, adibidez) jarrera apur bat tolerantzagoak agertzen diren. Etika soziala eta erantzukizun indibiduala balio sendoak dira lurralde osoan.

# 05

## ONDORIO OROKORRAK

Gipuzkoako lau barrutietan egindako inkestek erakusten dute herritarren artean demokraziaren aldeko atxikimendu zabala dagoela, baina baita espektatiba handiak eta kritika zorrotzak ere sistema demokratikoaren eguneroko funtzionamenduari dagokionez.

- Lehenik eta behin, **demokrazia forma politiko gisa zabalki onartua da lau barrutietan**. Gehiengo zabal batek dio demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea dela, eta parte-hartzaile gehienek **konpromisoa agertu dute demokrazia mehatxupean balego defendatzeko**. Hala ere, funtzionamenduarekiko gogobetetasuna ez da orokorra: Donostialdean eta Bidasoa-Oiartzunen, esaterako, kritika zorrotzagoak agertu dira eta desilusioa nabari da, politikariengandik urruntasun handiagoa hautematen baita.
- Balio sozial eta demokratikoen pertzepzioan, **askatasuna eta elkartasuna** dira gehien baloratutakoak lau barrutietan, eta enplegua ere balio positiboan artean kokatzen da. Aldiz, justizia, berdintasuna eta segurtasuna dira gehien kritikaturako arloak. Herritarren ustez, balio horiek ez dira maila egokian betetzen, eta horrek islatu egiten du gizartearekiko konfiantza mugatua dela hainbat esparrutan.
- Parte-hartze politikoari eta eraginari dagokionez, lau eskualdeetan nabaria da herritarren ustez **euren parte-hartzea oso mugatua dela**, eta sistemak ez diela erantzuten. Politikarien jarrerarekiko eszeptizismo zabala dago, eta herritar askok sentitzen dute euren iritzia ez direla kontuan hartzen.
- Demokraziarekiko balioen inguruan, nagusiki honako printzipio hauek lehenesten dira: **justizia berdintasunean oinarritua, adierazpen askatasuna, eta diru-sarrera duinak herritar guztientzat**. Bidasoa-Oiartzun eta Oria bezalako barrutietan, gainera, kontrol demokratikoaren eta gardentasunaren aldeko proposamen gehiago agertu dira (epaile independenteak, zerrenda irekiak, kontu publikoen gardentasuna...).
- Azkenik, banako jokabide etikoen inguruko iritziek erakusten dute **jarrera zorrotza dagoela desegokitzat jotzen diren portaerei dagokienez**, hala nola eroskeria, zerga-iruzurra edo laguntza publikoen erabilera okerra. Tolerantzia pixka bat handiagoa sumatu da eguneroko ohituretan (birziklapena, abiadura, e.a.), baina oro har etika sozialarekiko konpromisoa handia da lau barrutietan.

Laburbilduz, Gipuzkoako gizarteak demokraziaren aldeko atxikimendu sendoa erakusten du, baina aldi berean eraldaketarako nahia, parte-hartze handiagoren eskaria eta balio demokratikoen defentsa irmoa nabarmen agertzen dira.

**DEMOKRAZIARI**  
**BURUZKO ULERMENAK**  
**GUREAN**